**AZKEN GAU ORROITGARRIA** C.19



1 Azken gau hartan, zinuen, Jesus, hartu ogia :
Erditik hauste-ak zuen itxuratzen hiltzea.
« Nehork ez daut e-ni kentzen, zi-nion zuk, biziaz,
Neronek, bai, dut emaiten, salba di-tzan guziak »

**Bai, hau dut nik ai-torturen, zer egin duzun, Jauna :**
**Zu ordain jarriz egin den betiko batasuna.**

2 Afari egin ondoan, eman zi-nen opari
Kurutze Golgo-takoan Aita Jaungoikoari,
Erranez : « Batasun huntan Odola da lokarri.
Munduko lau he-galetan egin hau orroitgarri. »

3 Geroztik Jauna-ren herri gabiltz ha-ren manuko,
Anaier guk o-gi hori dugu es-kuratuko.
Hil bazen, hau du-gu berri : piztua dela Kristo,
Mezak du Jauna ageri : gauden Haren lekuko.

4 Ereile molde-an da jin Kreatzai-le Jainkoa.
Berak du hazi onekin utzi e-re gaixtoa.
Aihena txarra delarik, gure mahastikoa
Bilduko du Jaunak hortik uzta se-kulakoa.

5 Jauna noiz etor-riko den gaude be-ti aiduru,
Hartuko ote gaituen Berekin zeruz zeru.
Bere ogi, bai arnoen hazia hark bota du.
Mahaina dut jas-taturen, Harekin buruz buru.

***Huna ni Jauna har ene askatasuna***
***Ene orroitmen ene adimen osoa***
***Har nik dudan guzia***
***Eta enea den dena***
***Zuk eman deiztazu***
***Zuri dut Jauna dut bihurtzen***
***Dena zurea da egizu denetan***
***Nahi duzuna***
***Emazu zure maitasun eta grazia***
***Horiekin baduket nahikoa***

***Iñaki Loiolakoa (1491-1556)***

**AINGERU BATEK MARIARI**

*Anjelusa*

1 Aingeru batek Mariari
Dio graziaz betea
Jaungoikoaren Semeari
Emanen diozu sortzea.

2 Jainkoaren nahi saindua
Ni-baitan dadin egina
Izan nadien amatua
Bainan gelditu Birjina.

3 Orduan Berbo Dibinoa
Gorputz batez da beztitzen
Oi, ontasun egiazkoa :
Jauna gurekin egoiten.

4 Otoitz zazu zure Semea
Gure Ama amultsua
Izan dezagun fagorea
Ardiesteko zerua.




# MEZA

**ZU, ELIZA** K 14



**Zu, Eliza, Kristok bildu jendea,**
**zu, bataioz Kristoren artaldea,**
**zu, denen etxea, Jaunaren Eliza,**
**gorets Jauna !**
*Peuple de Dieu, Église du Christ !*

1 Bat gabiltza, denen adiskide,
bat bihotza, dena goiko fede :
Kristo argi eta Kristo bide, zeru alde.
*Christ notre lumière et notre chemin*

2 Bat gabiltza, Kristo aitzindari,
bat bihotza, elgarrekin ari :
pitz dezogun Haren argi hori munduari.
*Répandons sa lumière dans ce monde*

3 Bat gabiltza, Kristo guk iduzki.
bat bihotza, beldur gabe joaki.
Ai ! Munduak Jainkoa balaki nolaz aurki !
*Ah si le monde savait comment trouver Dieu !*

Urrikal, Jauna.
**Bekatu egin baitugu.**
Agertu guri, Jauna, zure bihotz ona.
**Eta salba gaitzazu.**

Urrikal, Jauna. **Urrikal, Jauna.**
Kristo, urrikal. **Kristo, urrikal.**
Urrikal, Jauna. **Urrikal, Jauna.**

**AINTZA ZERUETAN JAUNGOIKOARI**
**Eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri.**
Hain haundi ta eder zaitugulakotz, gora zu, benedikatua zu.
**Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri.**
Jainko Jauna, zeruko Errege,
**Jaungoiko Aita, guziahalduna,**
Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo.
**Jainko Jauna, Jainkoaren bildots, Aitaren Seme.**
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, **urrikal Jauna.**
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, **entzun gure deia.**
Aitaren eskuin-aldean jarririk zaude zu, **urrikal Jauna.**
Zu bakarrik Saindua, **Zu bakarrik Jauna,**
Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,
**Izpiritu Sainduarekin, Jainko Aitaren argitan. Amen.**

**33. SALMOA**
**Goza ta beha zoin den gozoa**
**Zoin den maitea gure Jainkoa !**
*Goûtez et voyez : le Seigneur est bon ! Heureux qui trouve en lui son refuge !*
Jaunari beti esker emaiten nagokio,
Hari nik beti laudorio.
Jaunaren baitan arima kantuz banabila,
Bihotz apalak pitz ditela.
*Je bénirai le Seigneur en tout temps*
Denek batean gorets dezagun Jainko Jauna,
Eta goraipa Jaun izena.
Jaunaren bila nindoan eta huna Jauna :
Beldurra baitaut urrun joana.
*Je cherche le Seigneur, il me répond*
Jaunari beha egon begiak dirdiraka :
Ez zaiteztten gal, ez ahalka.
Dohakabeak dei egin dio, Jaunak entzun,
Hersturik ez dut, hura lagun.
*Un pauvre crie ; le Seigneur entend*
Armaden pare dago Jaunaren Aingerua :
Fededunen zain xutitua.
Gozatuz goza, beha ba zoin den gozo Jauna :
Dohatsu hari darraikona.
*L'ange du Seigneur campe alentour pour libérer ceux qui le craignent.*

**ALLELUIA** A.102
Ene hitzean irauten baduzue, egiazki ene dizipulu izanen zirezte, eta ezagutuko duzue egia.
*Si vous demeurez fidèles à ma parole, vous êtes vraiment mes disciples ; alors vous connaîtrez la vérité.*

**Evangile de Jésus-Christ selon saint Luc 14, 25-33.**
De grandes foules faisaient route avec Jésus ; il se retourna et leur dit : « Si quelqu'un vient à moi sans me préférer à son père, sa mère, sa femme, ses enfants, ses frères et sœurs, et même à sa propre vie, il ne peut pas être mon disciple. Celui qui ne porte pas sa croix pour marcher à ma suite ne peut pas être mon disciple. Quel est celui d'entre vous qui, voulant bâtir une tour, ne commence par s'asseoir pour calculer la dépense et voir s'il a de quoi aller jusqu'au bout ? Car, si jamais il pose les fondations et n'est pas capable d'achever, tous ceux qui le verront vont se moquer de lui : "Voilà un homme qui a commencé à bâtir et n'a pas été capable d'achever !" Et quel est le roi qui, partant en guerre contre un autre roi, ne commence par s'asseoir pour voir s'il peut, avec dix mille hommes, affronter l'autre qui marche contre lui avec vingt mille ? S'il ne le peut pas, il envoie, pendant que l'autre est encore loin, une délégation pour demander les conditions de paix. Ainsi donc, celui d'entre vous qui ne renonce pas à tout ce qui lui appartient ne peut pas être mon disciple.

**SINESTEN DUT JAUNGOIKO BAT BAKARRA.** A 10
**Aita guziz ahaltsu, zeru-lurren Egile,**
**ageri diren eta ez diren guziena.**
Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo,
Jainkoaren Seme bakar,
mende guziak baino lehen Aita ganik sortua.
**Jainkoa ganik Jainko, argitik argi,**
**egiazko Jainkoa ganik egiazko Jainko.**
Sortua, ez egina, Aitaren izaite berekoa,
Haren bidez dira eginak gauza guziak.
**Gu gizonen gatik, eta gu salbatzeko, jautsi zen zerutik.**
Eta Izpiritu Sainduaren egitez,
Maria Birjina ganik gorputz harturik, gizon egin zen.
**Pontzio Pilatoren menpean gu gatik**
**gurutzeratua izan zen, oinazetan hila eta hobiratua.**
Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Sainduek erran bezala, Zerurat igan eta Aitaren eskuin aldean jarririk dago.
**Aintzaz etorriko da berriz, biziak eta hilak jujatzerat,**
**Eta haren Erregetzak ez du azkenik izanen.**
Sinesten dut Izpiritu Saindua,
Jaun eta bizi emaile, Aita ganik eta Semea ganik dena.
**Aitarekin eta Semearekin batean**
**agur eta goresmen berbera**
**hartzen duena, eta profeten ahoz hitz egin zuena.**
Sinesten dut Eliza :
**bat, saindu, katoliko eta Apostoluena.**
Aitortzen dut bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.
**Igurikatzen du hilen piztea, eta datorren munduko bizia.**
**Amen.**

Fededunen otoitza : **Onar Jauna egungo otoitza. (bis)**

*SAINDU A.8*
**Saindu, saindu, saindua !**
**Diren guzien Jainko Jauna !**
**Zeru lurrak beterik dauzka zure distirak.**
**Hozana zeru gorenetan !**
Benedikatua Jaunaren izenean datorrena.
**Hozana zeru gorenetan**

*GORETS KANTUA Anamnèse*
Hau da sinestearen mixterioa :
**Zure kurutze eta pizteaz**
**Munduaren Salbatzaile zirena,**
**Salba gaitzazu, Jesus Jauna.**

*JAUNAREN OTOITZA A.8*
**Gure Aita zeruetan zirena**
**Saindu izan bedi zure izena**
**Etor bedi zure erreinua**
**Egin bedi zure nahia**
**Zeruan bezala lurrean ere**
**Emaguzu gaur egun huntako ogia**
**Barkatu gure zorrak**
**Guk ere gure zorduner**
**Barkatzen diegunaz geroz**
**Ez gaitzazula utz tentaldian erortzen**
**Bainan atera gaitzazu gaitzetik.**

*JAINKOAREN BILDOTSA* A.8
**Jainkoaren Bildotsa,**
**Zuk kentzen duzu munduko bekatua,**
**Urrikal Jauna !**

**Jainkoaren Bildotsa,**
**Zuk kentzen duzu munduko bekatua,**
**Urrikal Jauna !**

**Jainkoaren Bildotsa,**
**Zuk kentzen duzu munduko bekatua,**
**emaguzu bakea !**